



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

## «Centro Kursaal – Kursaal Elkargunea, S.A.» SOZIETATEAREN ESTATUTUAK.

**I. KAPITULUA.**– Izaera, izena, xedea, iraupena eta helbidea.

### **1. artikulua**

«CENTRO KURSAAL – KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.» sozietatea merkataritzako konpainia anonimo bat da, eta hauen bidez arautuko da: bere kudeaketa-organoen erabakiak, bere estatutuak, Sozietate Anonimoen Legea eta, haren izaera juridikoari jarraikiz, bazkideei aplikagarriak zaizkien arauak.

### **2. artikulua**

Sozietateak eratze-eskritura egiletsi den datan ekin dio lanari, eta iraupen mugagabea izango du.

### **3. artikulua**

Sozietateak Donostian izango du egoitza, Zurriola hiribideko 1.an. Hala ere, beharrezkotzat jotzen dituen beste sukurtsal, agentzia edo ordezkaritza ezarri ahal izango ditu, Administrazio Kontseiluak hala erabakiz gero.

Batzar Nagusiak sozietatearen egoitza aldatu ahal izango du, betiere Donostiatik atera gabe; hala eginez gero, artikulua honetako lehenengo paragrafoa aldatu beharko da, baita erregistroko inskripzioa ere.

### **4. artikulua**

Sozietatearen helburua izango da Donostiako auditorioa eta biltzar-jauregia eraikitzea, sustatzea eta kudeatzea, baita eraikinak egitetik sortutako instalazio guztiak ustiatzea eta auditorio eta biltzar-jauregi gisa dagozkion jarduerak egitea ere.

Horretaz gain, sozietatearen helburua ere izango da kultura-jarduerak bere instalazioetan sustatzea, euskal kulturako berezko kultura-adierazpenak eskaintzea, eta euskal kulturaren irudia egokiagoa izan dadin ahalbidetzea; hori guztia, hauen bidez:

- Askotariko kultura-ekitaldien programa sortuta, gaur egun Donostiak duen kultura-eskaintza osatzeko, sozietateak ustiatzen dituen espazioek dituzten aukeren arabera.



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

- Lurraldeko hainbat eragile kulturelekin elkarlanean jardunda eta koordinatuta, programazio orokor aberatsa eta askotarikoa lortzeko, kalitate-maila handia izango duena eta gipuzkoar guztien zerbitzura egongo dena.
- Gipuzkoaren irudia (eta, bereziki, Donostiarena) nabarmenduta, kultura zentzurik zabalenean sustatzeko gune gisa, bai nazioan, bai nazioartean.

Sozietateak zuzenean edo zeharka ere garatu ahal izango du bere helburua, beste sozietate edo erakunde batzuen akzioak edo partaidetzak erosita edo publikoak nahiz pribatuak izan daitezkeen beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin hitzarmenak sinatuta.

## II. KAPITULUA.– Kapitala.

### **5. artikulua**

Hamar milioi berrehun eta hamaika mila bostehun (10.211.500) eurokoa izango da kapital soziala, ehun eta hogeita hamar mila (130.000) akzio arrunt eta izendunetan banatua, akzio bakoitza hirurogeita hemezortzi euro eta berrogeita hamabost zentimokoa (78,55) izanik. Akzio horiek 1 eta 130.000 bitartean zenbakitua daude (biak barne), eta erabat harpidetua eta ordainduta..

Akzioen tituluak banatzeko, indarrean dagoen merkataritzako legerian jasota dauden legezko eta erregelamenduzko xedapenetako baldintzak beteko dira.

### **6. artikulua**

Akzioak negoziagarriak izango dira, eta zuzenbidean onartutako bitarteko guztien bidez eskualdatu ahal izango da haien jabetza.

Hala ere, akzioak sozietatearen akziodun ez diren hirugarrenei eskualdatu nahi izanez gero, modu fede-emailean jakinaraziko zaio sozietateko administrazio-organoari, eta informazio hau emango zaio: akzioen identifikazio-zenbakia, salmenta-prezioak, ordainketa-baldintzak, eta eskualdaketaren gainerako baldintzak. 15 eguneko epean, jakinarazpena bidali eta biharamunetik hasita, sozietateak zuzenean erosi ahal izango ditu akzioak, eta kapitala murriztu egingo da.

Sozietateak ez badu erabiltzen eskubide hori adierazitako epearen barruan, 30 eguneko epean, aurreko paragrafoko jakinarazpena bidaltzen denetik hasita, horren berri emango die akziodunei, beste 30 eguneko epean, aurrekoa amaitu eta biharamunetik hasita, sozietateko administrazio-organoari jakinaraz diezaioten salgai dauden akzioak erosi nahi dituztela.

Lehentasunez erosteko eskubide hori hainbat bazkidek baliatuz gero, administratzaileek bazkide horien artean banatuko dituzte salgai dauden akzioak, kapital sozialeko



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

partaidetzaren arabera hainbanatuta, eta akzioak banaezinak izateagatik zenbait akzio esleitu gabe geratuz gero, eskaera egin duten akziodunen artean banatuko dira, sozietatean duten partaidetzaren arabera, handienetik txikienera; berdinketa egonez gero, zozketa bidez esleituko dira.

15 eguneko epean, lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko akziodunei emandako epea amaitu eta biharamunetik hasita, administratzaileek akzioak erosi nahi dituztenen izenen berri emango diote akzioak eskualdatu nahi dituen akziodunari.

Azken epe hori amaitu eta ezein bazkidek ez badu baliatzen lehentasunez erosteko eskubidea, akziodunak askatasunez baliatu ahal izango ditu akzioak sei hilabetez, eskainitako baldintza berdinetan, eta epe hori amaitu aurretik besterentzea gauzatu ez badu, akzioak *inter vivos* eskualdatu nahi dituela adierazi beharko du berriro, artikulua honetan xedatutako moduan.

Akordiorik lortu ezean, erosteko prezioa akzioaren balio errealari dagokiona izango da; honako hau da akzioaren balio erreala: sozietatearen kontu-ikuskariak finkatutakoa; sozietatea ez badago behartuta urteko kontuak egiaztatzen, edozein interesdunek eskatuta, helbide sozialeko merkataritzako erregistratzaileak izendatzen duen ikuskariak finkatzen duena.

Salbuespen izango dira eskualdaketa hauek:

- a) Sozietatearen edo beste akziodun batzuen alde egindakoak.
- b) Sozietateko administrazio-organoak baimendutakoak.

### III. KAPITULUA.- Sozietatearen administrazioa.

#### 7. artikulua

Hauek kudeatuko dute sozietatea:

- a) Akziodunen Batzar Nagusia.
- b) Administrazio Kontseilua.

Era berean, kontsulta-organo gisa, sozietateak batzorde bat izango du, «Kursaal Eszena» izenekoa.

-----BATZAR NAGUSIA-----

#### 8. artikulua



Akziodunak dira, behar bezala deitu eta eraturako Batzar Nagusian bilduta, sozietatearen borondatearen adierazpen-organo gorena, eta sozietatea osorik ordezkatzeko dute. Akziodun guztiek bete behar dituzte Batzar Nagusian legez hartzen diren erabakiak, baita bertaratzen ez direnek, bertaratzen direnek eta bileran parte hartu ez dutenek ere.

Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilkurak egingo ditu. Sozietateak egoitza duen hirian egingo dira; Administrazio Kontseiluko presidenteak egingo du haietarako deialdia, eta hura izango da bilkuretako buru.

Administrazio Kontseiluko presidenteak Batzar Nagusiko kide guztiei bidali behar die deialdia, idatziz, eta bilkura egiteko aukeratutako eguna iritsi baino gutxienez 15 egun lehenago.

Deialdian, hauek adieraziko dira: bilera noiz, zer ordutan eta non egingo den; zer gai aztertuko diren; eta bigarren deialdia ere izango dela, lehenengo deialdirako ezarritako toki eta ordu berean, baina hurrengo egunean.

Estatutu hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, Sozietate Anonimoen Legean xedatutakoa aplikatuko da; bereziki, bilkura bakoitza amaitzean aktak onartzea eta idazkariak akta horiek idaztea, horretarako aukeratutako kontu-hartzaileen bidez.

Akta-liburuan jasoko dira Batzar Nagusiaren erabakiak. Kontseiluko idazkaria arduratuko da akta-liburuaz, merkataritzako legerian ezarritako formalitateei jarraikiz.

Behar bezala eraturakotzat joko da sozietatearen akziodun guztiak edo haien ordezkariak bertan direla aho batez bilkura egitea erabakitzen dutenean.

Bertaratzeko eskubidea duten akziodun guztiek izan dezakete ordezkaria. Ordezkari hori bertaratzeko eskubidea duen beste akziodun bat izan daiteke.

## **9. artikulua**

Zeregin hauek dagozkio Akziodunen Batzar Nagusiari:

- a) Administrazio Kontseiluko kideak aukeratzea eta kargugabetzea.
- b) Estatutuak aldatzea, kapital soziala handitzea edo txikitzea, eta obligazioak jaulkitzea.
- c) Sozietatearen kudeaketa ikuskatzea eta, hala badagokio, urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena onartzea.
- d) Legez dagozkion gainerako ahalmenak erabiltzea, baita estatutu hauetan ezarritakoak ere.



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

## 10. artikulua

Akziodunen Batzar Nagusiak kasu hauetan egingo du bilkura:

- a) Ohikoa bada, urtean behin, ekitaldi ekonomikoaren lehenengo sei hilabeteetan, sozietatearen kudeaketa, urteko kontuak eta kudeaketa-txostena aztertzeko eta, hala badagokio, onartzeko, eta emaitzak aplikatzearen inguruan erabakitzeko.
- b) Ezohikoa bada, haren eskumenekoak diren gainerako gaiak eztabaidatzeko, presidenteak hala erabakitzen duenean, Administrazio Kontseiluak hala adosten duenean eta kapital sozialaren gutxienez % 5 duten bazkideek hala eskatzen dutenean. Halaber, behar bezala deitutakotzat eta eraturakotzat joko da sozietatearen akziodun guztiak edo haien ordezkariak bertan direla aho batez bilkura egitea erabakitzen dutenean.

Administrazio Kontseiluko kideek ere hartu ahal izango dute parte Batzar Nagusiaren bilkuretan, hitzarekin, baina botorik gabe. Sozietateko zuzendariak eta teknikariak ere bertan izango dira, eta presidentearen esanetara.

## -----ADMINISTRAZIO KONTSEILUA-----

## 11. artikulua

3 eta 18 kide artean izango ditu Administrazio Kontseiluak. Akziodunen Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, pertsona gaituen artean, eta lau urterako. Hala ere, berriro aukeratu ahal izango dira, edo, agintaldia amaitu baino lehen, Batzar Nagusiak kargugabetu egin ahal izango ditu, eta beste batzuk aukeratu.

Donostiako Udaleko alkatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia izango dira, txandaka, Administrazio Kontseiluko presidenteak, bi urterako. Horretarako, kontseilari izan behar dute. Administrazio Kontseiluko idazkariak presidente-aldaketaren berri emango dio merkataritzako erregistratzaileari. Presidenteorde bat ere izendatuko du Kontseiluak bere kideen artean, presidentea ordezka dezan hura gaixotzen bada, bertan ez badago, kargua hutsik geratzen bada, edo beste ezustekoren bat gertatzen da.

Hauek egingo ditu presidenteak edo, hala badagokio, presidenteordeak: Kontseiluaren bilkuretarako deialdia egin, haien buru izan, eta haien aktak egin; eztabaidak bideratu, eta, bozketetan, berdinketak erabaki, kalitateko botoaren bidez; Kontseiluaren erabakiak betearazi; sozietatearen jarduerak gainbegiratu; sozietatearen ordezkari gisa aritu egokitzat jotzen dituen ekitaldi, ospakizun eta gestioetan; premiazko egoeretan,



dagozkion neurriak hartu; eta sozietatearen izenean epaitegi, auzitegi eta edozein eratako erakundeetara joan, ahalorderik eskatu beharrik gabe. Hala ere, horren guztiaren berri emango dio Kontseiluari.

Kontseiluak libreki izendatuko du Administrazio Kontseiluko idazkaria.

Hauek egingo ditu idazkariak edo, hala badagokio, idazkariordeak: Kontseiluari aholku eman zenbait erabaki hartzerakoan; bilkuren aktak egin, eta, saio bakoitzaren amaieran, haiek onar daitezzen eskatu, hainbat arrazoiengatik (esaterako, bertaratutako kideen kopuruak horretara behartzen duelako, erregistroan inskribatu behar delako, edo epea amaitzeaz dagoelako); Kontseiluaren egintza eta erabakien inguruko ziurtagiriak; eta ahalegina egin sozietateak behar bezala dokumentatuta eta inskribatuta izan ditzan bere ondasunak eta eskubideak.

## **12. artikulua**

Administrazio Kontseiluari dagokio sozietatearen xedea betetzera zuzendutako egintza guztiak gauzatzea, eta sozietatearen interesak ordezkatzeko eta defendatzeko; horretarako, ahalmen eta gaitasun guztiak izango ditu.

Nahiz eta Kontseiluak egokitzen jotzen dituen legezko jardura guztiak adostu eta gauzatu ahal izango dituen sozietatea egoki administratzeko, hauek dagozkio, besteak beste:

1. Kontseilua bera antolatzea legetan edo estatutu hauetan araututa ez dagoen guztian.
2. Sozietatearen menpeko zerbitzu eta establezimendu guztiak antolatzea, zuzentzea, administratzea eta ikuskatzea.
3. Sozietateko langileen zerrenda onartzea, langileak kaleratzea, langile berriak kontratatzea, eta bestelako lan-egoerak kudeatzea.
4. Era guztietako epaitegi, auzitegi, erakunde eta pertsonen aurrean (nola publikoak hala pribatuak izan) sozietatea ordezkatzeko, ahalorderik eskatu gabe eta dagozkion ekintzak gauzatzeko.
5. Sozietatearen ondasun eta eskubideak erabiltzea eta haien gaineko zergak ordaintzea, haien izaera juridiko eta publikoak eta Batzar Nagusiaren erabakiek dakartzaten mugak soilik aplikatuta.
6. Edozein eratako kontratuak edo hitzarmenak egitea; haien bidez, egokitzen jotzen diren adostasun edo baldintzak betetzea eta finkatzea, kreditu-eragiketarako adostea, bermeak eskaintzea (baita hipotekazkoak ere), eta sozietatearen eskubideak salerostea eta haiei uko egitea.



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

7. Sozietatea ekonomikoki administratzea: diru-sarrerak eta gastuak egitea, kontuak eta gordailuak irekitzea eta ixtea, inbertsioak egitea, zorpetzea eta, oro har, trafiko juridikoak eta merkataritzakoak onartzen dituzten efektu eta tresna guztiak erabiltzea, eta lizitazio, bahitura, hartzekodunen batzar eta beste edozein gertaeratan parte hartzea.
8. Aurrekontuak eta jarduera-programak formalizatzea, eta sozietatearen kudeaketari buruzko kontuak ematea, indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako baldintzak eta epeak betez.
9. Zuzendari kudeatzailea, kontseilari delegatua, zuzendariak, ahaldunak eta aholkulariak izendatzea, eta Kontseiluak egokitzat jotzen dituen ahalmenak ematea; horretarako, Kontseiluak izendatutakoei emango dizkien ahalmenak adieraziko dira ahalordetze-eskritura publikoan, baita agintaldien baldintzak eta amaiera-data ere.
10. Legezko xedapenek edo estatutu hauek Akziodunen Batzar Nagusiarentzat gordetzen ez dituen gainerako eskuduntza guztiak erabiltzea.

### **13. artikulua**

Kasu hauetan bilduko da Administrazio Kontseilua:

- a) Presidenteak edo, hala badagokio, presidenteordeak hala erabakitzen duenean.
- b) Gutxienez kontseilarien laurden batek hala eskatzen dutenean.
- c) Legeetan edo estatutuetan epeak edo aldiak ezarrita daudenean Batzar Nagusiari proposamenak egiteko.

Presidentearen aginduz egingo da deialdia, bi egun lehenago, premiazko kasuetan izan ezik (halakoetan, Kontseiluak bilkuraren hasieran adieraziko du premiaren arrazoia). Deialdian, aztergaien zerrendako gaiak adieraziko dira, baita bilera noiz, zer ordutan eta non egingo den ere.

Kontseilariak beren izenean hartu ahal izango dute parte, edo beste kontseilari batek ordezkatuta, baimena idatziz eman ondoren.

Bilkura behar bezala eratutakotzat jo ahal izateko, Kontseiluko kideen gehiengoak bertaratu beharko dute, beren izenean edo ordezkatuta. Kontseilari kopurua nahikoa ez bada, bigarren deialdian egin ahal izango da bilkura, lehenengorako ezarritakoa baino ordubete geroago, bertaratuaren kopurua edozein dela ere.



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa da beren izenean nahiz ordezkatuta bertaratu direnen gehiengoak aldeko botoa ematea.

Hauek ere izango dira Administrazio Kontseiluaren erabakiak: deialdirik edo aztergaien zerrendarik egon ez arren kontseilari guztiak eta idazkaria (haien izenean nahiz ordezkatuta) bertan direla hartzen diren erabakiak; edo idatzizko botoaren bidez hartzen direnak, bilera egiten ez bada ere. Halakoak erabakitzat jo daitezten, kontseilari guztiek ados egon behar dute prozedura horiekin.

Kontseiluaren erabakiak akta-liburu batean jasoko dira, eta idazkaria arduratuko da akta-liburuaz, Sozietate Anonimoen Legean ezarritako formalitateei jarraikiz.

#### **IV. KAPITULUA.-** Emaizak zehaztea eta aplikatzea.

### **14. artikulua**

Sozietateak «Kursaal Eszena» izeneko batzorde bat izango du. Kontsulta-batzordea izango da, eta hauetaz arduratuko da: Administrazio Kontseiluari sozietatearen berezko kultura-jardueraren helburu eta xedeekin erlazionatutako erabaki-proposamenak egitea, hala nola kultura-programen aurrekontuak eta ekitaldi bakoitzeko likidazioa prestatzea; sozietateak garatu beharreko kultura-jarduerak proposatzea, eta dagozkion programak prestatzea; eta, oro har, sozietatearen berezko kultura-jardueraren helburu eta xedeekin erlazionatutako antzeko beste jarduera-proposamen batzuk egitea.

«Kursaal Eszena» batzordea gehienez hogeita (20) kidek osatuko dute; Administrazio Kontseilua arduratuko da kide kopurua zehazteaz, eta haiek izendatzeaz eta kargugabetzeaz.

Edonola ere, kide guztietatik gehienez lau sozietatearen bazkideetako bakoitzak proposatuko ditu, eta gainerakoak, berriz, sozietatearen berezko kultura-jarduera gauzatzeko ekarpen ekonomiko esanguratsuak egiten dituzten pertsona edo erakundeak.

«Kursaal Eszena» batzordeko kideek denbora-mugarik gabe egongo dira beren karguetan, nahiz eta Administrazio Kontseiluak edonoiz kargugabetu ahal izango dituen.

Administrazio Kontseiluak aukeratuko du «Kursaal Eszena» batzordeko presidentea, batzordeko kide diren erakunde pribatu sustatzaileen artetik. Zeregin hauek dagozkio presidenteari: bileretarako deialdiak egitea eta haien buru izatea, eztabaidak bideratzea, eta hartzen diren erabakiak gauzatzea.

Batzordeak berak aukeratuko du «Kursaal Eszena» batzordeko idazkaria.





# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Bestalde, «Kursaal Eszena» batzordeak arautuko du bere funtzionamendua; bertan, gutxienez, deialdien arauak, organoaren eraketa eta erabakiak hartzeko modua ezarriko dira.

## **15. artikulua**

Sozietatearen ekitaldia urte natural batekoa izango da. Salbuespen gisa, lehenengo ekitaldia sozietatearen eratze-datatik aurrera hasiko da.

## **16. artikulua**

Administrazio Kontseiluak hiru hilabete izango ditu, sozietatearen ekitaldia amaitzen denetik, urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena prestatzeko, baita, hala badagokio, dokumentu bateratuak ere.

Donostiako Udaleko Funtzen kontu-hartzaileak, bere izenean edo pertsona egokiak ordezkaturik, kontuen barne-ikuskaritza egingo du. Hala ere, legez beharrezkoa bada, eta dagokion ekitaldia amaitu baino lehen, Batzar Nagusiak kontu-ikuskari bat edo gehiago izendatu beharko ditu kontuen kanpo-ikuskaritza egiteko, merkataritzako legeriak ezarritako baldintza berberetan.

Aurreko atalean adierazi bezala ikuskatu eta Kontseiluko kide guztiek sinatu ondoren, urteko kontuak eta kudeaketa-txostena akziodunei bidaliko zaizkie, Akziodunen Batzar Nagusiaren ohiko bilkura egin baino 15 egun lehenago, eta Udalari ere helaraziko zaizkio, behar beste lehenago, bilkurarako deialdia eta bilkura bera legezko epeen barruan egin daitezten.

## **17. artikulua**

Batzar Nagusiak sozietatearen emaitza aplikatzeari buruzko erabakia hartuko du, onartutako balantzearen arabera, eta dibidenduak akziodunen artean banatuko ditu, ordaindu duten kapitalaren araberrako proportzioan, etekinen edo erabilera libreko erreserben kontura, legezko erreserba bermatu ostean. Batzarrak erabakitako borondatezko erreserba guztiak diruz hornitzeko egoki iritzitako zenbatekoak zehaztuko ditu, kapital sozialaren aldeko legezko xedapenak betez.

Zenbatekoak dibidenduen kontura banatzea erabaki ahal izango du administrazio-organok, Legean ezarritako mugak eta betekizunak betez.

**V. KAPITULUA.-** Sozietatea desegitea eta likidatzea.



# KURSAAL

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

## **18. artikulua**

Arrazoi hauengatik desegino da sozietatea:

- a) Akziodunen Batzar Nagusiak hala erabakiz gero, Toki Araubidearen Legerian ezarritako eskakizunekin.
- b) Sozietate Anonimoen Legeriak derrigor eta nahitaezko eskakizunekin ezartzen dituen arrazoiengatik, eta, bereziki, sozietatearen helburua betetzeagatik.
- c) Sozietateari agindutako zerbitzu publikoak emateko modua aldatuz gero, Estatutuak aldatzea nahikoa ez bada.
- d) Bazkideren batek berariaz edo ustez uko egiten badio kapital soziala handitzeari edo akzioak harpidetu nahiz ordaintzeari sozietatean duen partaidetza doitzeko, edo auditorioa eta biltzar-jauregia eraikitzeke kostuetan duen benetako partaidetza doitzeko.

## **19. artikulua**

Sozietatea desegin ondoren, likidatu egingo da. Horretarako, likidatzaileak aukeratuko dituzte bazkideek; hain zuzen ere, likidatzaile kopuru bakoitia.